C. TESTU JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA, EUSKARATIK GAZTELANIARA ITZULI BEHARREKOA

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen asmoa izan zen arau bakar batean biltzea Foru Komunitateko Administrazioa eta Nafarroako Gobernua bera zeharo garden izan zitezen ezinbestekoak ziren funtsezko alderdiak eta printzipioak; Administrazio publiko berri baterako oinarriak ezartzeko eta herritarrekin erlazio modu berriak baliatzeko ahalegina izan zen, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari erlazio juridiko berri horren gune nagusiaren izaera emanez.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea –oinarrizko legea hein handi batean– onesteak eta indarra hartzeak erabateko aldaketa ekarri zuen estatuan lehenagotik zegoen erregulazioarekin alderatuta (Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea); izan ere, herritarrek informazio publikoa eskuratzearen alde egiten du une oro legeak, eta haren ukatzea arrazoituta egin behar dela ezartzen du, legean berariaz aurreikusitako kausaren bat tartean dagoelarik.

Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak hiru arlotan eragiten du, hitzaurrean jasotzen denez: lehenik, jarduera publikoaren gardentasuna handitu eta indartzen du –administrazio eta erakunde orok bete beharreko publizitate aktiboko betebeharren bidez artikulatzen da gardentasuna–; bigarrenik, informazioa eskuratzeko eskubidea onartu eta bermatzen du –eremu subjektibo eta objektibo zabaleko eskubide gisa arautua dago–; eta, hirugarrenik, arduradun publikoek bete beharreko gobernu onerako arauak eta horiek ez betetzearen ondorio juridikoak ezartzen ditu –jarduera publikoak egiten dituen ororentzat erantzukizuneko eskakizun bihurtzen da–. Lege honekin aurrera egiten da publizitate aktiboko betebeharrak taxutzeko prozesuan, eta sakondu egiten da, horietara biltzeko administrazio publiko guztiak, botere legegile eta judizialeko organoak –zuzenbide administratiboaren mendeko jarduerei dagokienez– eta Konstituzioaren eta estatutuen araberako bestelako organoak. Halaber, lege hau beste zenbait erakunderi ere aplikatuko zaie, garrantzi publiko berezia izateagatik edo funts publikoak jasotzeagatik beren jardueraren gardentasuna indartzera behartuta daudenean.

D. TESTU TEKNIKOA EDO DIBULGAZIOKOA, GAZTELANIATIK EUSKARARA ITZULI BEHARREKOA

Landa eremua biziarazteko Baztango ahalegina

Landa eremua solasbide dugu Euskal Herrian, nahiz auzoko herrietara baino beranduago iritsi den eztabaida. Gaitz erdi, hala ere. Landa eremuaz mintzo den jende guztia ezti eta maitasunez ari da. Inork ez du solas txarrik, oro da borondate on. Baina gainbeherak segitzen du. Jendea hirietan pilatzen ari da, eta landa eremua husten, Europar Batasunean populazioaren %75 inguru hirietan bizi baita, Munduko Bankuak dioenez.

Landa eremuek maiz gatazka bizi dute. Baztanen Magna enpresak Erdizko herri-bazkalekuan egin nahi duen aire zabaleko meategia edo Aroztegiko afera urbanistikoa, adibidez; biak ere landa eremuaz kezka bizia bide duen gobernuak bultzaturik. Lurraldea etengabe jokoan dago, eta klase interesek ingurunea etengabe berrantolatzen dute. Tirabira horrek bertako herritarrak beren geroaz pentsatzerat eta bidea eginarazterat bultzatzen ditu. Hori da landa eremuak biziarazteko gakoetako bat, zer nahi ez den jakitea eta norberaren lurraldeari buruzko konpromisoa.

Nolanahi ere, landa eremuak espazio sortzaileak dira, baita Euskal Herrian ere. Gurean, *Arras Baztan* marka sortu bidenabar, izen bereko fundazioa eratu da, ibarreko eragile ekonomiko andana –nekazariak, merkatariak, ostatu turistikoak, udala, lanbide eskola– antolatu dituena. Ibarra desegituratzen eta mehatxatzen ari diren ereduen eta proiektuen aitzinean gehiengoarendako onargarriak diren «alternatibak» nortasunetik eraikitzeko sortu da ekimena, trantsizioaren logikan, biziaren eta ekonomiaren birtokiratzea kontzeptu eta proiektu bezala landuz.

Alta, oraingo bideak landa eremuak atakarat ekarri baditu, oraingo mundua gaindituz soilik biziaraziko dira landa eremuak: haustura logika batean prozesu bital eta produktiboak lurreratuz eta muga iraunkorretara ekarriz, birtokiratuz; baina birjabetuz ere bai, bizitzeko beharrezkoak ditugun prozesu produktibo eta bitalak, ondasunak eta baliabideak desmerkantilizatuz eta komunalizatuz. Bizitzeko eskala koxka bat edo bi jaitsiz, soilagoak eta neurrizkoagoak izanik soilik biziaraz baitaiteke landa eremua.